


Zozketa egingo

dugu bi aste barru

XINGOLAn parte hartu
duten lagunen artean.Irabazleek liburu bat
jasoko dute etxean. Eta
zu? Zeren zain zaude zu?Bidaliguzu zure
marrazkia, argazkia edo
gutuna. Datorren
zozketan zu izan zaitezke
sariduna.**Kaixo,** lagunok!

Gu Gainzuri ikastetxeko 5. III
ikasgelakoak gara. Aurtengo
ikasturtean txango asko egi-
ten ari gara. Egun batean,
martxoaren 15ean, Garbirina
abarkak nola egiten diren
ikastera joan ginen. Asko ikasi
eta oso ondo pasatu genuen.
Juanek erakutsi zizkigun egi-
ten. Gero herria ikusi eta fut-
bolean jokatu genuen. Agur,
XINGOLA!

5. III ikasleak
Gainzuri ikastetxea
(Urretxu-Zumarraga)

Izarne

Ipintzak bidalitako marrazkia da hau, lore, eguzki eta hodei eta guzti. Izarnek 6 urte ditu, eta
Zizurkilen bizi da.

Eskerrik asko, Izarne!

**«Kaixo,**

ni Mari Beltza Valverde naiz, eta 9 urte ditut. Oiartzungo Elizalde ikastetxera joaten naiz, eta
oso gustura. Marrazki hau hondartzan dauden bi neska-mutilena da. Agur»

agurrak

Agur bat Legazpiko
Koldorentzat aurreko
astean oso ondo pasa
nuelako berarekin
Salouen. Xabier Mencia
(Donostia)

Arduraduna: Jon Ordoñez Garmendia

Bidali zure gutunak, agurrak, marrazkiak eta argazkiak helbide hauetara:Egoitza nagusia EGUNKARIA Gudarien etorbidea z/g 20140 Andoain Posta elektronikoa xingola@egunkaria.com